



LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ZIKLOA: 5. eta 6. mailak.

AURKIBIDEA

1. Helburu orokorrak	2
2. Edukiak	2
3. Egun bateko egitaraua	3
4. Bi eguneko egitaraua	4
5. Hiru eguneko egitarua	5
6. Ekintzen deskribapena	6



1. HELBURU OROKORRAK

- Itsas inguruneak ezagutzea
- Kostaldeko herriak ezagutzea
- Itsasoko animalia eta landareak ezagutzea
- Itsasoko bizidunak zaintzearen aldeko jarrerak sustatzea

2. EDUKIAK

- Itsas inguruneak
- Itsas inguruneko bizidunak
- Giza jarduerak itsasoan: arrantza
- Kostaldeko herrien izaera

3. EGUN BATEKO EGITARUA

2 egitarau desberdin eskaintzen dira:

A) EGUN PASA GETARIAN:

- 10:00- Ongi etorria. Eguneko ekintzen berri eman. Panela.
- 10:30- Hamaiketakoa.
- 11:00- Getariara oinez. Bidean azalpenak: Ketaren kondaira, balearen istorioa, Getariako txakolina.
- 12:30- Elkanoren oroigarria bisita
- 13:30- **Bazkaria (etxetik ekarrita).**
- 15:00- Getarian arrainen puzzlea.
- 16:00- Getariako kaia ikusi. Pista jolasa eta itsasontziko puzzlea portuan.
- 16:30- Ekintzen amaiera Getariako Gurutze Gorrian.

B) EGUN PASA ASKIZUTIK ZUMAIARA:

- 10:00- Ongi etorria. Eguneko ekintzen berri eman. Panela.
- 10:30- Hamaiketakoa.
- 11:00- Zumaiara oinez. Bidean azalpenak: Getariako txakolina.
- 12:00- Aparejuen tailerra.
- 13:30- Bazkaria (etxetik ekarrita).**
- 14:45- Arrantza
- 15:30- Itsasontzia
- 16:30- Ekintzen amaiera Zumaiako Amaia Plazan (autobus geltokia).

4. BI EGUNEKO EGITARAUA

Lehen eguna:

- 10:00- Ongi etorria. Eguneko ekintzen berri eman. Panela.
- 10:30- Hamaiketakoa.
- 11:00- Getariara oinez (Igeraingo kasuan autobusez). Bidean azalpenak: Ketaren kondaira, balearen istorioa, Getariako txakolina.
- 12:30- Elkanoren oroigarria bisita.
- 13:15- **Bazkaria (etxetik ekarrita).**
- 14:30- Getariako kaia ikusi. Pista jolasa eta itsasontziko puzzlea portuan.
- 16:30- Askaria eta denbora librea
- 17:15- Autobusez Askizura edo Igerainera.
- 17:45- Aparejuaren aurkezpena
- 18:30- Ekintzen amaiera.

Bigarren eguna:

- 10:00- Aparejo tailerra amurik gabe.
- 11:00- Oinez Zumaira (Igeraingo kasuan autobusez).
- 11:30- Itsasontzian ibili eta arrantzan egin.
- 13:00- Autobusez Askizura edo Igerainera.
- 13:30- Bazkaldu.
- 14:30- Letra zopa eta "Harrapatu eta galdetu" jolasa.
- 15:30- Ekintzen amaiera

Oharra:

Arrantza eta itsasontziaren ekintzak burutzeko itsasgora kontuan hartzen dugu.

5. HIRU EGUNEKO EGITARUA

Lehen eguna:

- 10:00- Ongi etorria. Eguneko ekintzen berri eman. Panela.
- 10:30- Hamaiketakoa.
- 11:00- Getariara oinez (Igeraingo kasuan autobusez). Bidean azalpenak: Ketaren kondaira, balearen istorioa, Getariako txakolina.
- 12:30- Elkanoren oroigarria bisita.
- 13:15- **Bazkaria (etxetik ekarrita).**
- 14:30- Getariako kaia ikusi. Pista jolasa eta itsasontziko puzzlea portuan.
- 16:30- Askaria eta denbora libre
- 17:30- Autobusez Askizura edo Igerainera.
- 18:00- Aparejuaren aurkezpena
- 18:30- Ekintzen amaiera.

Bigarren eguna:

- 10.00- Elkartu eta eguneko ekintzen berri eman
- 10:30- Itsasontziaren puzzlea.
- 11:15- Aparejuen tailerra.
- 13:30- Bazkaldu.
- 14:45- Igerain aterpetxetik Zumaiara autobusez edo Askizutik Zumaiara oinez.
- 15:15- Itsasontzia.
- 16:00- Arrantza.
- 17:00- Askaria
- 17:30- Autobusez Zarautzera edo Askizura.
- 18:00- Lokots bilketaren jolasa.
- 18:30- Ekintzen amaiera.

Hirugarren eguna:

- 10:00- Elkartu eta eguneko ekintzen berri eman.
- 10:30- Iñurritzako biotopo babestua ezagutzen.
- 12:30- Letrazopa.
- 13:30- Bazkaldu.
- 14:30- Harrapatu eta galdetu.
- 15:30- Ekintzen amaiera

Oharra:

Arrantza eta itsasontziaren ekintzak burutzeko itsasgora kontutan hartzen dugu.

6. EKINTZEN DESKRIBAPENA

ITSASOKO BIZIDUNEN PANELA

Taldeei harrera egiteko panel handi bat erabiltzen da. Panelean ikasleei non dauden eta non ibiliko diren adierazten zaie (Getaria, Zarautz eta Zumaia artean) eta horretaz gain, Getaria herriaren izaera arrantzalea adierazten zaie panelean agertzen den Getariako kaiaz baliatuz.

Helburuak

- Ikasleek Getaria, arrantza eta itsasoari buruz dituzten aurre ideiak ezagutzea.
- Landuko den gaiari buruz, ikasleen interesa piztea.

Edukiak

- Itsasoko oinarrizko elementuen ezaugarriak: itsas hondoa, animaliak, ura, landareak...

ASKIZUTIK GETARIARA

Irteera hau ordu beteko ibilbidea da. Kostaldeko erromatar bidean zehar, txakolina egiteko landatutako mahatsondoetan barrena Getariara iritsiko gara eta bertan herria ikusiko dugu. Herriko kaiaren bisitaldiaren ondoren, Elkanoren oroigarri bisitatuko dugu eta oroigarriaren ondoan gizon ospetsu honen bidaia azalduko zaie.

Bukaeran, 1878. urtean era tradizionalen arrantzatzen azken balearen istorioa kontatuko zaie, kontrolik gabeko arrantzak izan ditzakeen ondorioak azpimarratuz.

Helburuak

- Herri arrantzale bat ezagutzea.
- Baxurako arrantzaren ezaugarriak ulertzea.
- Kaia eta baxurako itsasontziak ikustea.
- Elkanoren bizitza eta munduari eman zion bira ezagutzea.
- Baleen desagertzearen berri izatea.

Edukiak

- Kantauri itsasoan arrantzarako espezie preziatuenak.
- Elkanoren bizitza: Munduari bira.
- Baxurako itsasontziak.
- Arrantzako lanabesak.
- Getariako kaia.
- Baleen desagertzea gure kostaldetik

ASKIZUTIK ZUMAIARA

Irteera hau ordu beteko ibilbidea da. Kostaldeko Santiago bidean zehar, txakolina egiteko landatutako mahatsondoetan barrena Zumaiara iritsiko gara eta bertan herria ikusiko dugu.

Helburuak

- Kostaldeko herri bat ezagutzea.
- Kirol portua eta bertako itsasontziak ikustea.
- Ontziolen berri izatea.
- Txakolina egiteko prozeduraren berri izatea.

Edukiak

- Ontziolen jarduera.
- Getariako txakolina.

ARRAINEN IBILBIDEAK: “Txitxarro familiaren ibilbidea”

Arrainek, jaiotzen direnetik, platerera iristen diren arte egiten duten ibilbidea antzerki bidez erakusten da. Istorioa hezitzaileek gidatzen dute eta ikasleei hainbat pertsonai antzeztea eskatzen zaie.

Helburuak

- Arrainek, jaiotzen direnetik platerera iritsi arte burutzen duten ibilbidea ezagutzea.
- Talde lana sustatzea.

Edukiak

- Arrainen kanpo anatomia.
- Arrainen babes moduak.
- Itsasoa, arrantzaleak, arrandegia, kamioi gidaria , etxeko jangela...

ARRAINAREN PUZZLEA

Jarduera hau arrainen kanpo anatomia ezagutzeko prestatuta dago. Ikasleei desegindako puzzlea banatzen zaie eta beraiek hezitzaileen azalpenekin, puzzlea osatu behar dute.

Helburuak

- Arrainen zatiak ezagutzea.
- Zati desberdinen funtzioak ulertzea.

Edukiak

- Arrainen zatiak.
- Arrainen ezaugarriak.

ELKANOK MUNDUARI EMANDAKO BIRA

Elkanok munduari bira ematen igaro zituen abenturak kontatzen dira ipuin honetan. Ikasleak bost taldetan banatzen dira eta bakoitzak itsasontzi bat antzetzten du Elkanok eta bere marinelek egin zuten bidaia egiteko. Kontakizunean zehar, ikasleek lurralde desberdinetako bizimoduak ezagutu eta lehendabiziko aldiz munduari bira eman zioten marinelen abenturak biziko dituzte.

Helburuak

- Elkanoren bizitza eta munduari eman zion bira ezagutzea.
- Elkanok bisitatutako lurraldeak eta hango biztanleen bizimoduak ezagutzea.
- Talde lana sustatzea.
- Garai hartako bizimodura hurbiltzea.

Edukiak

- Elkanok burututako bidaia
- Munduko kultura ezberdinak ezagutzea.

ITSASONTZIAREN PUZZLEA

Jarduera honekin, baxurako itsasontzien egitura eta zatiak erakusten zaizkie. Getarian ikusitakoa errepasatuz, ikasleei puzzlea banatzen zaie deseginda eta beraiek, hezitzaileen azalpenekin, puzzlea osatu behar dute.

Helburuak

- Itsasontzien antolaketa ezagutzea.
- Itsasontziak lan tresnak direla ulertzea.
- Arrantzaleen lana bertatik bertara ikustea.

Edukiak

- Itsasontzien zatiak.
- Arrantzaleen lan teknikak.

APAREJUEN TAILERRA

Ikasleek, arrantza aparejuak egingo dituzte tailer honetan. Hezitzaileek pausuz pauso azalduko dute egin beharrekoa.

Helburuak

- Aparejuen zatiak ezagutzea.
- Aparejuak egiten ikastea.
- Talde lana sustatzea.
- Arrantzako ohiko korapiloak ikastea.

Edukiak

- Aparejuen zatiak: pita, birakaria, kortxoa, amua, beruna, etab.
- Arrantza korapiloa.

ITSASONTZIAN UROLAN ZEHAR

Zumaiako kirol portutik abiatu eta Urola ibaian gorantz abiatzen gara. Jarduera honetan ibaia eta itsasoari buruzko azalpenak ematen zaizkie.

Helburuak

- Ibaiak itsasoratzen diren guneen ezaugarriak ezagutzea.
- Ingurumenaren aldeko jarrerak sustatzea.

Edukiak

- Ibaiak
- Olatuak eta mareak

ITSASONTZIAN ZUMAIAKO FLYSCH-A IKUSTEKO IRTEERA

Zumaiako Txomin Agirre pantalanetik abiatu eta Urola ibaian gorantz abiatzen gara, Algorriko lurmuturrera iritsi arte. Jarduera honetan altxor geologikoa den Zumaiako flyschari buruzko azalpenak ematen zaizkie.

Helburuak

- Flyscharen beste ikuspegi bat ezagutzea.
- Marearteko eremuaren sorrera azaltzea.

Edukiak

- Flyscharen egitura, harri geruzak.
- Marearteko eremuko biodibertsitatea.